



## ESKOLA BATZARRAREN BATZORDE IRAUNKORRAREN ERABAKIEN ZIURTAPENA ETA ARGITARATZEKO AGINDUA

BATZORDEAREN DATA: 2015eko abenduak 9

EDURNE SEIJO HERNANDORENAK, UPV/EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoko Idazkari Akademikoak, hurrengoa

### ZIURTATZEN DU

2015eko abenduaren 9ko Batzarraren Batzorde Iraunkorraren ohiko deialdian hurrengo **ERABAKIAK** hartu egin direla:

### ERABAKIAK

1. 2015-16 ikasturterako otsaileko ezohiko deialdiko GRAL epaimahaiaren bi kideren izendapenak berretsi dira eta Graduako 1go ikasmailako koordinatzailearen izendapenaren berretsi egin da
2. 2016-17 ikasturterako Eskolaren jai eguna 2016ko abenduaren 9a izatea adostu da
3. Arkitekturaren Oinarrietako Gradua Titulazioaren 2014-15 ikasturteko Jarraipen Txostena eta 2014-15 ikasturteko Ikastegiko Kudeaketa Txostena ere onartu egin dira
4. Atzerriko tituluak Arkitekto tituluarekin (2003ko Plana, Gaikuntzakoa) homologatzeko AGETen egin beharko diren prestakuntza eskakizunen prozedura onartu egin da.

Erabaki hauek Ikastegiko iragarki-taulan eta ohiko baliabide informatikoen bitartez argitaratuko dira.

Ziurtagiri honekin batera hurrengo **ERANSKINAK** atxiki dira:

**ERANSKINA 1** ( Arkitekturaren Oinarrietako Gradua Titulazioaren 2014-15 ikasturteko Jarraipen Txostena eta 2014-15 ikasturteko Ikastegiko Kudeaketa Txostena. Oharra: Txosten hauek UPV/EHUko Gradu Batzordeak onartu bezain laster argitara emango dira)

**ERANSKINA 2** ( Atzerriko tituluak Arkitekto tituluarekin (2003 Plana) homologatzeko AGETen egin beharko diren prestakuntza eskakizunen prozedura)

Donostian, 2015eko abenduaren 11n

Izp.:Edurne Seijo Hernandorena  
Arkitektura GETko Idazkari Akademikoa



## 2 ERANSKINA

### **ARKITEKTURA GOI ESKOLA TEKNIKOAN (UPV/EHU) ATZERRIKO TITULUAK ARKITEKTO TITULUAREKIN (2003KO PLANA) (GAIKUNTZAKOA) HOMOLOGATZEKO PRESTAKUNTZA ESKAKIZUNAK EGITEKO PROZEDURA**

967/2014 Errege Dekretuak, 2014ko azaroaren 21ekoak, atzerriko tituluak Europako Unibertsitate Eremuaren gaikuntza tituluekin homologatzeko eskakizunak eta prozedura ezartzen ditu, eta bigarren xedapen iragankorrean, atzerriko tituluak azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretua indarrean sartu aurretik hasitako arkitektura tituluekin homologatzeko eskaerak aipatzen ditu. Hain zuzen ere, bigarren xedapen iragankor horretan, iraungitzearen diren gaikuntza tituluak homologatzeari dagokionez, berariaz aipatzen da beharrezkoa dela unibertsitateek ministerioen ebazpenean eskatutako prestakuntza eskakizunak hartzea, atzerriko tituluak homologatu nahi den tituluen ikasketa plana dagoeneko unibertsitatean ez eman arren.

#### **1. APLIKAZIO EREMUA**

Prozedura hau aplikatuko zaie atzerriko tituluak 2014ko azaroaren 21eko 967/2014 ED indarrean sartu aurretik hasitako tituluekin (2003ko plana, gaikuntzakoa) homologatzeko eskaerei soilik, baldin eta eskaerei dagokien ministerio ebazpenak izapidetu badira 1987ko urtarrilaren 16ko 86/1987 Errege Dekretuaren arauen arabera edo 2014ko otsailaren 20ko 285/2004 Errege Dekretuaren arauen arabera.

Oro har, ministerio ebazpena 1987ko urtarrilaren 16ko 86/1987 EDren arabera izapidetu bada, prestakuntza eskakizunak 2016/17 ikasturtea amaitzean gainditu beharko dira, gehienez ere. 2004ko otsailaren 20ko 285/2004 EDren arabera izapidetutako eskaerei dagokionez, prestakuntza eskaera osagarriak lau urteko epean gainditu beharko dira, kasu bakoitzean ministerio ebazpena jakinarazten den datatik zenbatzen hasita.

#### **2. ATZERRIKO TITULUAK ARKITEKTOGA GAIKUNTZA TITULUAREKIN (2003KO PLANA) HOMOLOGATZEKO ARKITEKTURA GOI ESKOLA TEKNIKOAN (UPV/EHU) GAINDITU BEHARREKO PRESTAKUNTZA ESKAKIZUNAK.**

Ministerio ebazpenaren arabera, Arkitektura Goi Eskola Teknikoan (UPV/EHU) bi bide hauek —elkarri baztertzailak— planteatzen dira prestakuntza eskakizunak gainditzeko.

## **2.1. KARRERA AMAIERAKO PROIEKTU BAT EGITEA (KAP)**

Arkitektura Goi Eskola Teknikoan (UPV/EHU) prestakuntza eskakizunak gainditzeko, Karrera Amaierako Proiektu bat (KAP) egin eta gainditu beharko da, baldin eta ministerio ebazpenak berariaz aipatzen badu prestakuntza eskakizunak gainditzeko Karrera Amaierako Proiektu bat egin daitekeela.

Ikastegiko Atzerriko Tituluen Homologaziorako Epaimahaiak KAPa proposatu eta ebaluatuko du. Hautagaiak KAPerako proposatutako zuzendariak Homologaziorako Epaimahaiaren oniritzia eduki beharko du. Proposatutako zuzendaria Arkitektura Goi Eskola Teknikoari (UPV/EHU) eta Arkitektura Sailari atxikitako irakaslea izan ezean, tutorea halakoa izatea bermatu beharko da. Ikastegiko Atzerriko Tituluen Homologaziorako Epaimahaiak kontrakoa adierazi ezean, eskakizun prestakuntza osagarriak Arkitektura Goi Eskola Teknikoan (UPV/EHU) egiteko matrikula formalizatzeko unean indarrean dagoen arkitekto lanbidean aritzeko gaitasun titularen ikasketa planaren karrera amaierako proiektua arautzen duen Arkitektura Goi Eskola Teknikoaren (UPV/EHU) araudian ezarriko dira proiektuaren ezaugarri nagusiak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

KAPa ikasturte batean hasi eta amaituko da. Ikasturte bakoitzean, gutxienez bi deialdi ezarriko dira, proiektua Ikastegiko Atzerriko Tituluen Homologaziorako Epaimahaiaren aurrean aurkezteko eta defendatzeko. Matrikulak karrera amaierako proiektua aurkezteko eta defendatzeko bi deialditan aurkezteko eskubidea emango du, ikasturte bakoitzean. Ikastegiko Atzerriko Tituluen Homologaziorako Epaimahaiak "GAI" edo "EZ-GAI" kalifikazioa emango dio proiektuari.

## **2.2. GAITASUN PROBA BAT EGITEA**

Arkitektura Goi Eskola Teknikoan (UPV/EHU) prestakuntza eskakizunak gainditzeko, gaitasun proba bat egin beharko da, baldin eta ministerio ebazpenean berariaz aipatzen ez bada prestakuntza eskakizunak Karrera Amaierako Proiektu baten bidez gainditu behar direla.

Gaitasun proban, ministerio ebazpenean aipatutako gaiak jasotzen dituen proba bat egin beharko da. Ikastegiko Atzerriko Tituluen Homologaziorako Epaimahaiak gaitasun probaren izaera eta edukiak ezarriko ditu.



Ikasturte bakoitzean, hautagaiak bi deialdi izango dituzte gaitasun proba gainditu ahal izateko. Ikastegiko Homologaziorako Epaimahaiak “GAI” edo “EZ-GAI” kalifikazioa emango dio gaitasun probari.

### **3. ARKITEKTURA GOI ESKOLA TEKNIKOAN (UPV/EHU) PRESTAKUNTZA ESKAKIZUNAK GAINDITZEKO EPEAK ETA ZIURTAGIRIAK**

Hautagaiak ikasturte batean Arkitektura Goi Eskola Teknikoan (UPV/EHU) prestakuntza eskakizunak gainditzen ez baditu eta Ministerioak horiek gainditzeko ezarritako gehieneko epea amaitu ez bada, hurrengo ikasturtean, hautagaiak Arkitektura Goi Eskola Teknikoan (UPV/EHU) prestakuntza eskakizunak gainditzeko matrikula egin ahal izango du. Horrela bada, hautagaiak ez du berriro eskatu beharko Arkitektura Goi Eskola Teknikoan eskakizun osagarriak egiteko onarpena; alabaina, ikasturte berriari dagozkion prestakuntza eskakizunak egiteko matrikula egin beharko du.

Arkitektura Goi Eskola Teknikoan (UPV/EHU) prestakuntza eskakizunak gainditu ondoren, Ikastegiko Atzerriko Tituluen Homologaziorako Epaimahaiak gertaera hori idatziz egiaztatu, eta Arkitektura Goi Eskola Teknikoaren zuzendariari igorriko dio, hiru eguneko epean, gehienez ere, dagokion deialdian prestakuntza eskakizunak gainditu dituzten hautagaien zerrenda argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita. Arkitektura Goi Eskola Teknikoaren (UPV/EHU) zuzendariak dagokion ziurtagiria igorriko du interesdunaren alde, bost eguneko epean, gehienez ere, Ikastegiko Atzerriko Tituluen Homologaziorako Epaimahaiaren ziurtagiria jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita.

### **4. KALIFIKAZIOEI ERREKLAMAZIOAK JARTZEA**

Kalifikazioak argitaratu ondoren, hautagaiak behar bezala arrazoitutako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, kalifikazioak argitaratu eta hamar eguneko epean, Ikastegiko Erreklamazioen Epaimahaiari bideratutako eskaera baten bidez.

Ikastegiko Erreklamazio Batzorde horrek, hamar eguneko epean, gehienez, eta behar diren txostenak eskatu ondoren, kasua aztertu, eta erabaki arrazoitua hartuko du. Ondoren, eraginpeko pertsonari eta ikastegiko zuzendariari erabakiaren berri emango die, eta zuzendariak ikastegiko idazkariari helaraziko dio erabakia, jakinaren gainean egon dadin eta behar diren ondorioak sor ditzan. Behar izanez gero, akta aldatuko da. Ikastegiko idazkari akademikoak Atzerriko Tituluen Homologaziorako Epaimahaiari Ikastegiko Erreklamazioen Batzordeak kalifikazioetan egindako aldaketak jakinaraziko dizkio.

Ikastegiko Erreklamazioen Epaimahaiaren erabakia ikusita, eraginpeko pertsonak, hilabeteko epean, gora jotzeko administrazio errekurtsua jarri ahal izango du, errektorearen aurrean, eta horrek bide administratiboa agortuko duen erabakia igorriko du, Ikastegiko Erreklamazio Epaimahaiak igorritako txostenak ikusi eta dagozkion aholkuak eskatu ondoren.

## 5. ESKAERA ETA MATRIKULA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

### ARKITEKTURA GOI ESKOLA TEKNIKOAN PRESTAKUNTZA ESKAKIZUNAK EGITEKO ESKAERA

Ikasturte bakoitzean epe bat finkatu, eta behar besteko aurrerapenez argitaratuko da, atzerriko titulua arkitekto gaikuntza tituluarekin (2003ko plana) homologatu nahi duten interesdunek prestakuntza eskakizun osagarriak Arkitektura Goi Eskola Teknikoan (UPV/EHU) egiteko eskaera aurkez dezaten (Karrera Amaierako Proiektua edo Gaitasun Proba, prozedura honetan ezarritakoaren arabera).

Ikasturte batean, Arkitektura Goi Eskola Teknikoan prestakuntza eskakizun osagarriak egiteko eskaera berrien kopuruak Homologazio Epaimahaiak bere gain har dezakeena gainditzen badu, epaimahai horrek hautapen irizpide batzuk ezarri ahal izango ditu, eta horien arabera argitaratuko du ikasturte horretan onartutako eta baztertuko hautagaien zerrenda. Zerrenda hori jendaurrean jarriko da, behar besteko aurrerapenez, ikastegiak matrikula egiteko ezarritako datak aintzat hartuta. Nolanahi ere, ikasturte batean eskaera berriak aurkezten diren aldiro, eskaera horien gutxienezko kopuru bat onartzen dela bermatu beharko da.

### MATRIKULA

Ikasturte bakoitzean, Arkitektura Goi Eskola Teknikoan (UPV/EHU) prestakuntza eskakizun osagarriak egiteko matrikula epe bat finkatu, eta behar besteko aurrerapenez argitaratuko da, Epaimahaiak onartutako eta baztertutako eskaera berrien zerrendaren argitaratze data aintzat hartuta. Arkitektura Goi Eskola Teknikoan prestakuntza eskakizun osagarriak egiteko eskaera aurkeztuta eta eskaera hori Homologazio Epaimahaiak onartuta duten pertsonak soilik gauzatu ahaliko dute matrikula.

Matrikula Arkitektura Goi Eskola Teknikoaren (UPV/EHU) Ikasleen Idazkaritzan egingo du interesdunak edo behar bezala egiaztatutako pertsona batek, zeinak interesdunaren legezko baimena izango baitu ikastegiak ezarritako prozeduraren arabera.

## **Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Matrikula egiteko unean, interesdunak edo interesdunak legez egiaztatutako pertsonak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu, Ikastegiko Ikasleen Idazkaritzan:

- Arkitektura Goi Eskola Teknikoaren (UPV/EHU) zuzendariarentzako idatzia (eredu arautua).
- NAN edo pasaportearen kopia eta originala, biak erkatzeko.
- Curriculum Vitae
- Zientzia eta Hezkuntza Ministerioaren ebazpenaren kopia bat eta originala, biak erkatzeko.
- Dagozkion prezio publikoak ordaindu izanaren dokumentuaren kopia. Ordainketa hamar egun naturaleko epean egingo da, Arkitektura Goi Eskola Teknikoaren (UPV/EHU) Ikasleen Idazkaritzak igorritako ordainketa gutunaren bidez edo adierazitako kontuan egindako diru sarreraren bidez, erreferentzia zenbakia (Idazkaritzak emango duena) eta interesdunaren izen-abizenak berariaz adierazita.
- Eskatzailearen argazki bat
- Arkitektura Goi Eskola Teknikoaren (UPV/EHU) Atzerriko Tituluen Homologaziorako Epaimahaiak edo Zuzendaritzak interesdunak alegatutako inguruabarrak egiaztatzeko eska dezaken beste zeinahi dokumentu.

Arkitektura Goi Eskola Teknikoa (UPV/EHU), 2015eko abenduak 2